



ALOKATZEA ERRAZAGOA

Etxebizitzak eta lokalak errentan hartu eta emateko diru-laguntzak

Azkoitian etxebizitzak eta lokal komertzialak errentan hartu eta ematea sustatu nahi du Udalak, eta horretarako erraztasunak emango ditu. Diru-laguntza bereziak onartu ditu, hiru motatakoak, bai etxebizitzak errentan hartu edo eman nahi dituztenentzat, bai lokal komertzial hutsak errentan eman edo hartu nahi dituztenentzat ere.

Helburuak argiak dira: gazteei emantzipazio bidean laguntzea, herrian hutsik dauden etxeak alokairu sozialera bideratzea, eta negozio berriak jarri nahi dituzten herritarrei lagundu eta aldi berean herriko lokal hutsak betetzea.

Dagoeneko eskatu daitezke laguntza horiek. Etorri zaitetz udaletxera eta bertan egingo dizkizugu tramiteak.

El Ayuntamiento ha aprobado una serie de ayudas para impulsar el alquiler de viviendas y locales vacíos en el municipio. El objetivo es promover la emancipación de las personas jóvenes, encaminar las viviendas vacías del municipio al alquiler social, ayudar a las personas que quieran poner un nuevo negocio, e incentivar el uso de los locales vacíos del municipio. El plazo para solicitar las ayudas ya está abierto y se tramitarán en el Ayuntamiento.

**ALOKATZEA
ERRAZAGOA DA
ORAIN AZKOITIAN**

GAZTEEK ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK



BALDINTZAK

- 18-35 urte bitartean izan eta jabetzan etxebizitzarik ez edukitzea.
- Diru-laguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egotea.
- Etxebiden izena emanda egotea.
- Etxe horretako pertsona bat, eskaera egiten duen unean, gutxienez 3 urteko antzinatasunarekin Azkoitia erroldatuta egotea, edo bestela, aurretik, beste noizbait, etenik gabe 5 urtez udalerrian erroldatuta egon izana.
- Diru-laguntzen zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da; Alde Zaharreen dauden etxeak errentan hartzen dituztenek eta %65eko ezgaitasuna duten gazteek laguntza handiagoa izango dute (50 euro gehiagokoa).

Diru-laguntzen taula, bizikidetz-unitatea persona bakarrak osatzen duenean:

Diru sarrerak eurotan	Diru laguntzaren %	Gehienezko diru-laguntza
25.000,01 eta 27.000,00 € bitartean	% 15	75 €
23.000,01 eta 25.000,00 € bitartean	% 20	100 €
21.000,01 eta 23.000,00 € bitartean	% 30	150 €
19.000,01 eta 21.000,00 € bitartean	% 40	200 €
19.000,00 € arte	% 50	250 €

Diru-laguntzen taula, bizikidetz-unitatea bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutenean:

Diru sarrerak eurotan	Diru laguntzaren %	Gehienezko diru-laguntza
32.000,01 eta 34.000,00 € bitartean	% 15	75 €
30.000,01 eta 32.000,00 € bitartean	% 20	100 €
28.000,01 eta 30.000,00 € bitartean	% 30	150 €
26.000,01 eta 28.000,00 € bitartean	% 40	200 €
26.000,00 € arte	% 50	250 €

DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA ETA TOKIA

Laguntzak ekainaren 1era bitartean eskatu behar dira, Udaleko Harrera Bulegoan.

INFORMAZIO GEHIAGO

Azkoitia Lantzen. 943 85 71 51

Ayudas para las personas jóvenes que quieran alquilar una vivienda.

- Dirigidas a personas entre 18 y 35 años.
- Las subvenciones dependerán de las rentas de las personas solicitantes.
- Ya se pueden solicitar en el Ayuntamiento, en la Oficina de Atención a la Ciudadanía.
- Último día para presentar la solicitud: 1 de junio.
- Más información: 943 85 71 51

ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIRU SOZIALERA BIDERATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Hiru motatako laguntzak izango dira:

1.- Etxebizitzak eraberritu eta haien irisgarritasuna bermatzeko laguntzak Baldintzak

- Bizigune programan izena emanda egotea.
- Etxebizitza eraberritzeko obren kasuan, lanen kostuaren %50era arteko diru-laguntza emango da (gehienez 8.000 euro, kasko historikoan dauden etxeentzat; eta 4.000 euro, gainerakoetan) . Obrak irisgarritasuna bermatzeko egiten badira, berriz, kostuaren %60ra artekoa izango da (gehienez 10.000 euro, kasko historikoko etxeetan, eta 5.000 euro, gainerakoetan).

2.- Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko diru-laguntza Baldintzak

- Bizigune edo Asap programetan izena emanda egotea.
- Ziurtagiriaren kostuaren % 75era arteko laguntza emango da, gehienez ere 200 eurokoa.

3.- Etxebizitzak eraberritzen direnean, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati bat herriko saltokietan erosteko bonuetan itzuliko da Baldintzak

- Bizigune edo Asap programan izena emanda egotea.
- Obra-baimenagatik ordaindutako zerga eta tasaren % 50aren pareko diru-laguntza izango da, gehienez 450 eurokoa.
- Diru-laguntza herriko komertzioetan erosteko bonuetan emango da.

LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA ETA TOKIA

Abenduaren 31ra bitartean, Udaleko Harrera Bulegoan.

INFORMAZIO GEHIAGO

Azkoitia Lantzen. 943 85 71 51

Ayudas para encaminar las viviendas vacías al alquiler social. Tres tipos de subvenciones:

- Para realizar reformas en la viviendas, incluidas las reformas para accesibilidad.
- Para obtener el certificado de eficiencia energética
- Devolución de parte del impuesto de obras en bonos de compra en el comercio local.
- Ya se pueden solicitar en el Ayuntamiento, en la Oficina de Atención a la Ciudadanía.
- Último día para presentar la solicitud: 31 de diciembre.
- Más información: 943 85 71 51